



TOLOSALDEAK 548 BISITARI ERAKARRI DITU

Tolosaldea Tourren arabera pasa berri den Aste Santuan okupazioak %54tik %63ra egingo du gora 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2010-04-07

VIII. URTEA 1968. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JUANMA ZALDUA MUSIKARIA ETA SOINU TEKNIKARIA

«Beraien bizitza da, ez geneukan gidoirik eta ez genituen behartu nahi»

TOLOSA Down sindromedun protagonistak dituen 'Simplemente' filmaren zuzendariordea da

ASTEBETEZ Castro (Kantabria) ondoko kanpin batean egiten zuten eguneroko bizitza grabatu zuten 4



E.MAIZ



Adunako Uztartza Jatetxean harriak ikusgai daude. E.MAIZ

Gorostidi Harriaren IV. Txapelketan Mendizabal gogoan

ADUNA Harri-jasotzaileekin batera aizkolariak eta txinga eroaleak egongo dira hilaren 25ean 5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizua

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>



Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeko igerilariak. HITZA

25 domina eskualdeko igerilariarentzat Euskal Herrikoan

Kirola » Getxon izan zen proban Tolosaldea IKTko 16 igerilari aritu ziren; urrezko 8, zilarrezko 5 eta brontzezko 12 lortu zituzten.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko absolutu, junior eta etorkizuneko mailako Igeriketa Txapelketa jokatu zen iragan asteburuan Getxon, eta Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeak urrezko 8 domina, zilarrezko 5 eta brontzezko 12 irabazi zituen.

16 igerilariarekin hartu zuen parte Tolosaldea IKT taldeak. Iosu Karrera 200 estilo eran txapeldun izan zen eta 400 libre eran hirugarren. Marta Alonsok ere lehen postua lortu zuen junior mailan 200 bizkarrezkoan eta 200 libre eran. Iñaki Karrera, Iosu Karreraren anaiak, 1.500 eta 400 libre eran marka ona egin zuen. Eneka Muñagorri etorkizuneko mailan txapeldun izan zen 800 libre eran eta txapeldunorde 100 libre eran. Iñigo Pradaren lana ere nabarmentzekoa izan zen 200 libre eran eta 100 libre eran.

Maria Mansok txapelketa polita burutu zuen, 100 bizkarrezko eran estatuko denborarik onena lortzea ar egon baitzen. Pablo Uzkudunek 100 libre eran hartu zuen parte denbora ona eginetz, eta hirugarren egin zuen 200 bizkarrezkoan. Jokin Otaegire ere hirugarren geratu

zen 100 estilo eran. Olaia Cuadrado 200 libreko eran eta 100 bizkarrezkoan egin zuen igeri, bietan ere maila ona erakutsiz. Ibon Soto 100 libreko eran aritu zen, eta egin zuen denborari esker Espainiako Txapelketarako txartela lortu du. Ekaitz Privadok, berriz, ez zuen bere egunik onena izan 50 bular-igeriketan. Ezta David Rodriguezek ere, bere mailatik urrun egon baitzen. Irati Ibarbiak, Ane Mansok, Ainhoa Onsalok eta Leire Muñagorri ere hartu zuten parte denbora ona eginetz.

Taldeka, neskek hirugarren izan ziren erreleboka 4x100 eta 4x200 libre eran eta 4x100 estilo eran, beraz, etorkizun polita izan dezaketela erakutsi zuten.

Infantil mailan ere bikain

Bestalde, Galdakaon Infantil mailako Euskal Herriko Igeriketa Txapelketa jokatu zen, eta Tolosaldea IKTko igerilarien parte hartzea oso ona izan zen, zilarrezko domina bat eta brontzezko hiru lortu zituztelarik.

Idoia Alonsoren txapelketa nabarmendu behar da, bere lehen txapelketan zilarrezko domina eta estatuko denborarik onena lortu baitzuen 100 bizkarrezko eran, eta brontzea 200 metroetan. Iban Gabirondok zilarra lortu zuen 200 bizkarrezko eran, eta baita Beñat Bidaolake ere 100 estilo eran. Zuriñe del Pozok eta Maria Muñoak ere txapelketa bikaina egin zuten.

Tolosaldea bisitatu dutenen kopurua %35 igo da

Ekonomia » Okupazioan ere gorakada izan da, %54tik %63ra, pasa den urteko Aste Santuarekin alderatuta.

ERREDAKZIOA

Datu onak izan ditu Aste Santu honetan turismoari dagokionez Tolosaldeak, izan ere, bisitarien kopuruak nabarmen egin du gora pasa den urteko datuekin konparatuta. Hain zuzen ere, 548 bisitari izan ditu jaiegun hauetan Tolosaldea Tour bulegoak, iaz baino %35 gehiago, orduan 406 izan baitzuten.

Eskualdeko turismo bulegotik

azaldu dutenez, gorakada nabarmena Araba eta Bizkaiko bisitarietan nabaritu da, beraz, Gipuzkoako beste hainbat puntutan bezala, Euskal Herriko biztanle asko etxetik gertu geratu direla nabaritu da.

Gorrotxategi eta Aranburu

Tolosako Alde Zaharreko eta Gorrotxategi Konfiteria Museoko bisita gidatuen zerbitzua mantendu egin dute, eta horretaz gain, Gorrotxategi Museoa goizez eta Aranburu jauregia arratsalde zabalik egon dira. Guztira 200 lagunek bisitatu dute museoa eta erakusketa, bai bisita gidatuetan edota euren kabuz, iaz baino 62 pertsonagehiago.

Bestalde, Espainiatik etorri diren bisitarien kopuruan ere gorakada izan da, eta hori okupazio mailan ere nabaritu da. Pasa den urteko Aste Santuan %54ko okupazioa izan bazen, aurten %63koa izan da 5 egunetan. Espainiako leku askotan herenegun ez zen jai, eta horregatik askok igandean utzi zuten ostatua; horregatik, lehen lau egunak kontuan hartuta, %81eko okupazioa egon zen.

Turismo bulegoaren esanetan, gorakada honetan zeresana izan dute Topic zentroak eta ireki berri den Larraitzeko abentura parkeak; «eskualdea helburu erakargarriago bihurtu dute eta lagungarri izan dira bisitariak gure eskualdea aukeratzeko garaian».



Txindokiko itzala Larraitzeko abentura parke berriak bisitari ugari izan ditu. HITZA

Jon Anzaren heriotzaren inguruan ikerketa sendoa eskatu du Udalak

Tolosa » Desagerketaren inguruan zalantzak daude; Tolosako historian izandako beste hilketa batzuekin konparatzen du.

ERREDAKZIOA

Iragan martxoaren 30ean egin zen Osoko Bilkuran Jon Anzaren desagerpenaren inguruan EAJ, EA eta Hamaikabat alderdiek aurkeztutako mozioa onartu zuen Udaltzat EAJ, EA, Hamaikabat eta EB-Aralar alderdien aldeko bozkekin. PP eta PSOEko ordezkariek aurka bozkatu zuten. Mozio horren arabera, Udalak Jon Anzaren heriotzaren inguruan dauden zalantzak argituko dituen ikerketa sendoa eta independente bat egitea beharrezko ikusten du.

Jon Anzaren desagerpena salatu zenetik 10 hilabetera agertu zen bere gorpua Tolosako (Okzitania, Frantzia) ospitale batean. Mozioak dioenez, «heriotza eta desagerketaren inguruan zalantzak eta argitu gabeko zirkunstantziak daude». Anza Baionatik tren zehar abiatu zen, eta bihotzekoak jota agertu zela kalean azaldu dute. Handik 12 egunera hil omen zen, konorterik gabe egon ondoren.

Frantziako Poliziak Jon Anza fitxatua izan arren eta bere bilaketarako ikerketa zabaldua bazuen ere, ia urtebete pasa arte ez zuten bere gorpua aurkitu. Mozioan gehitzen dutenez, denbora honetan guztian, desagerpenaren inguruan jasotako informazioek zalantzak sortu dituzte. Horregatik, testuinguru batean kokatzen dute desagerpena eta horren arabera

neurriak hartzea eskatzen dute: «Gure gizarteak bizi duen egoera politikoa kontuan izanda eta Tolosako historia hurbilean izan diren beste hilketa batzuk ezagututa, giza eskubideen zapalketa onartezin bat izanik, beharrezko ikusten dugu heriotza honen inguruko ikerketa sendoa eta independente bat egitea». Bestalde, Udalak argi utzi nahi du mozio honekin «giza eskubide guztien aldeko konpromiso sendoa» duela, eta desagerketaren inguruko ikerketaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizun guztiak garbitzea eskatzen du.

Tolosako Udalak onartu berri duen adierazpen honen berri herriarrei emateaz gain, Tolosako instrukzio epaileari, Fiskaltzari, Frantziako Gobernuako presidenteari eta Espainiako Gobernu presidenteari ere emango dio.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Kolektorearen lanak apirillean amaituko direla aurreikusten dute Tolosako Udal ordezkariak. ASIER IMAZ

Hodiak sare berrira konektatzean amaituko dira kolektorearen lanak

Tolosa » Azken lanak hiru fasetan eta bi gunetan burutuko dituzte; Udalak azaldu duenez hilabete honetan amaituko dira.

ASIER IMAZ

Tolosako Udalak jakinarazi duenez kolektorearen lanak apirillean amaituko dituzte. Helburu horretara iristeko geratzen diren betebeharrak berriz, hiru fasetan antolatuko dituzte. Azken trafikoko eragozpenak bi gunetan sortuko direla ere jakinarazi dute.

Belaten eta Rondilla-Barrenan Kolektorearen hodiak sare berriarekin konektatzen atzo hasi ziren: Belate kalean bi jarduera egingo dira eta Rondilla eta Barrena kalean bestea. Apirilaren amaieran lanak amaituta egotea aurreikusten da, Tolosako Udalaren esanetan.

Belate atzo itxi zuten, eta trafikoa geldirik egongo da bertan aste-bete inguruan. Rondilla inguruko aparkalekurako sarrera Barrena kaletik egingo da. Belate kaletik erdigunera iristeko, Siervas-eko atzeko aldetik igaro beharko da eta azkenik, Anoetatik datozen ibilgailu astunak Larramendiko sa-

rteratik sartu beharko dute Tolosara.

Ondoren, konexioaren bigarren fasea, hilaren 12an jarriko dute martxan, hain zuzen ere, Rondilla eta Barrena kaleen artean. Hemen autoak igaro ahal izateko trafikoa arautuko da.

Era berean, konexioaren hirugarren eta azken fasea Belate kalean izango da hilaren 19an hasita. Oraingo honetan, Rondilla inguruko aparkalekutik autoa atera nahi duten auzokoei Siervas-eko atzeko aldetik igaro beharko dute Rondillara sartu eta handik Tolosa erdigunera joan ahal izateko.

Tatxin eta Tatxan pailazoaren saioa bertan behera gelditu da

Ibarra » Haur eta gaztetxoentzat antolatutako ekitaldiak gaur hasiko dira Bihar taldearen txotxongiloekin.

A. IMAZ

Ibarrako Kultura eta Gazteria Batzordeak Pazko Astearen harira hainbat ikuskizun antolatutako Benito Izagirre kultur etxean.

Lehen emanaldia Tatxin eta Tatxan pailazoek eskaini behar zuten atzokoan, baina «Ibarrara bidean istripua izan» eta saioa bertan behera gelditu zen.

Gaur, bihar eta etzi

Haur eta gaztetxoei zuzendutako programazioaren baitan, *Hau natura! Airea, lurra eta ura* txotxon-



Tatxin eta Tatxan Tolosako Leidor antzokian. ESTI EZEIZA

gilo-emanaldia eskainiko du gaur Bihar taldeak, Kultur Etxean 11:30ean.

Bihar Apika taldekoak etorriko dira Ibarrara. *Mundu berria* lana aurreratu die 7 urtetik gorako

haurrei. Ipuin-kontaketa saioa Kultur Etxean izango da, hau ere 11:30etik aurrera. Etzi azkenik, 3-8 urte bitarteko haurrak *Altxoraren bila* ariko dira Lanku taldearekin, leku eta ordu berean.

Bi leitzarrak banakako txapelketan egongo dira

Pilota » Abel Barriolak Juan Martinez de Irujoen aurka jokatu du larunbatean, hilaren 10ean, ligaxkako lehen partida.

rengo pilotariak daude: Olaizola II.a, Gonzalez eta Xala. Laugarren pilotaria Ruiz eta Beginoren arteko lehiatik irtengo da.

Lehen partidak asteburuan

Abel Barriolak Irujoen aurka jokatu du lehen partida, hilaren 10ean. Lesiotik irten berri den leitzarra gogotsu aurkitzen da: «zozketa egin aurretik enpresari jokatzeko moduan nengoela esan nion. Fisikoki hobetzeko tartea gelditzen zait, baina buruz oso ongi eta fresko aurkitzen naiz».

Oinatz Bengoetxeak Asier Olaizola izango du aurkari, eta multzo gogorra tokatu zaion arren, lehen partidari bakarrik pentsatzen duela onartu zuen atzo.

A. IMAZ

2010eko Eskuz Banakako Txapelketa atzo aurkeztu zuten Bilbon. Aurten sistema berria erabiliko dute, izan ere, finalerdietan bi ligaxka jokatu dira. Guztira 8 pilotarik hartuko dute parte eta horien artean Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea daude. Bi leitzarrak multzo berean aurkitzen dira, Irujo eta Olaizola I.aren batera. Beste multzoan ondo-

Espainiako nortasun agiria Tolosatik kanpo

ERREDAKZIOA

Espainiako nortasun agiria Tolosan ateratzeko edo berritzeko aukera martxoaren 31n amaitu zen. Arazo «teknikoak» medio, betebeharrak hori Espainiako Polizia Nazionalaren egoitzan azaltzen duenak, zita eskatu gabe lortu ahal izango du Espainiako nortasun agiria. Agiri berriek txip bat darabate eta bertan behatz marka digitala aurkitzen da.

Horretarako, alde aurretik

txanda eskatu beharko da internet bidez edo 902-24 73 64 telefono zenbakira deituz. Premia larria duenak eta horren arrazoia Polizia Nazionalaren egoitzan azaltzen duenak, zita eskatu gabe lortu ahal izango du Espainiako nortasun agiria. Agiri berriek txip bat darabate eta bertan behatz marka digitala aurkitzen da.

Laburrak

Tolosa Kup txapelketan izena emateko aukera

FUTBOLA • Tolosa Kup areto futbol txapelketan izena emateko aukera etzi, hilaren 9an, amaituko da. Horretarako Kultur Etxean aurkeztu beharko dira agiriak, goizez. Txapelketa hilaren 17an eta 18an jokatu da eta taldeak osatzeko zozketa hilaren 13an, 18:00etan, egingo dute. Informazio gehiago www.zazpitantriangulon.com helbidean zintzilikatu dute.

Extremaduran sei egun pasatzeko aukera

TOLOSA • Harizpe jubilatu eta pentsiadunen elkarteak txangoa antolatuko du Extremadurara, hilaren 17tik 22ra. Sei egunetako irteera honetara joan nahi dutenek izena emateko azken eguna hilaren 12a izango dute. Bazkideek, txartel eguneratuak erakutsiz, 289 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek sei euro gehiago, hau da, 295 euro.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek **Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak** edo ikasleak behar dituzte **lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera

E Elkarrizketa**JUANMA ZALDUA** › Musikaria eta soinu teknikaria**Kultura** ›

'Simplemente' filman zuzendariorde aritu da. Maiatzean estreinatu nahiko luke herriean Down sindromedun protagonistak dituen lana.

ENERITZ MAIZ

Juanma Zaldúa (1966, Tolosa) besteak beste, musikaria eta soinu teknikaria da, baina orain gutxi bere lehen film luzea estreinatu du. Ordu asko eta lan asko egin ostean, azkenean otsailaren 27an estreinatu zuten *Simplemente* filma Arrasaten. Lan honetako protagonistak Down sindromea duten lagunak dira. Tolosarrak lehen aldiz, zuzendariorde lanak egin ditu.

'Simplemente' filma aurkeztu duzue. Nondik sortu zen lana egiteko ideia?

Jon Anduezen ideia izan zen. Film labur batzuk eginak zituen eta bere azken lanaren protagonista nagusia ere Down sindromea du. Lan horrekin sari bat eman zioten Leioan eta saria jasotzera joaterakoan koadrila hau azaldu zen bertan. Ondoren zerbait hartzera joan ziren eta hauek ezagutzeko aukera izan zuten. Berez dantza talde bat da eta dantza talde bat izateaz gain, lagun horiekin beste zerbait ere egin zitekeela ikusten zuten. Jon, beste batzuek eta ni, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoekin lanean gabilta, niri aipatu zidan eta programara ere ekarri zituen gonbidatu gisa eta hauekin zerbait egin behar genuela konturatu ginen eta horrela suertatu zen. **Noiz jarri zenuten egitasmoa martxan?**

Ia hiru urte pasa dira grabaketa egin genuenetik. Taldeak potentziala zeukala ikustean, gurasoekin hitz egin genuen eta ondoren, Castro ondoko kanpin batera eraman genituen, hondartza ingurura. Ez genuen ezer baina lotura bat bagenuen; hauek astebebeze han izango zirela eta beraien bizitza egingo zutela eta baita asteburuan hondartzan dantza saio berezi bat egin beharko zutela ere. Eta horrela izan zen kontua.

Eta zein izan da zuen lana?

Gure lana aste horretan beraien atzetik guztia grabatzen ibiltzea izan zen. Hainbat lekutara joan ginen eta zer eginen zuten grabatu genuen. Behin kameraz ahaztu eta askatu zirenean... izugarriko sorpresak hartu genituen.

Beraien eguneroko bizitza grabatu duzue, beraz.

Bai bai, beraien bizitza da. Gidoirik ere ez geneukan eta ez genituen behartu nahi. Behartzen badituzu itxi egiten dira. Baina kasu batzuetan, nolabait esateko, egoera batzuk eragin behar izan genituen, zerbait erostera dendabaterasartu



E. MAIZ

«Esperientzia benetan hunkigarria izan da, asko erakusten dizute»

araziz, adibidez. Handik ia 50 ordu grabatuta bueltatu ginen.

Kasu honetan, zuzendariorde lanak egin dituzte.

Bai, grabaketa egunetako nire lanak beraiek mugitzea izan zen. Kanpinetik atera, alde batetik bestera eraman edota egoera batzuk behartu behar izan nituen. Behin grabaketatik bueltatuta, hainbeste ordurekin, aukeraketa bat egin behar izan genuen eta bertan gertatu zen istorioari zentzua eman genion. Hauxe izan da lanik handiena eta azkenean, 50 orduetatik 80

minututako lan bat egin dugu. Bilerak asko egin genituen zer sartu behar zen eta zer ez aukeratzeko.

«Ia 50 ordu grabatu genituen eta azkenean 80 minutuko lan batean geratu da istorioa»

Adostasun batera iristea izan da kontua.

Grabaketa ondorengoa izan da lanik potoloena, beraz. Laguntzarik**izan duzue?**

Lan handia izan da. Jon Andueza izan da zuzendaria eta bere emaztea ere gutxi gorabeherako gidoia idazten joan da. Bi kamera egon ziren eta bestalde musika Joxerra Senperenak egin du. Hasieran batera laguntzarik gabe hasi ginen eta bakoitzak proiektuari eskaintzeko genuen denborarekin hasi ginen lanean. Behin produktu txukun bat genuela ikustean, familiari erakutsi eta gustatu zitzaizena, aurrera egin behar genuela ikusi genuen. Orduan hasi ziren diru kon-

tuak. Momentu horretan ez genekien nola bideratu, produktoreen bat behar genuen eta tartean Juanba Berasategi sartu zen. Kristoren zortea izan genuen eta horrek pila bat lagundu digu prozesua aurrera eramaten. Grabazioarena oso lan polita izan zen, baina gerokoa, ez dakit nola esan... lan zikinagoa da. Denetik pasa dugu, baina azkenean lortu dugu.

Zer nolakoa izan da esperientzia?

Esperientzia zoragarria izan da. Astebebeze lagun hauekin han egotea eta ezagutzea eta nola bizi diren ikustea, pila bat erakutsi digute. Beraiek guri baino, beldurraguk diegula konturatzen zara. Behin

«Beraien bizitza da. Ez geneukan gidoirik eta ez genituen behartu nahi; bestela itxi egiten dira»

«Jendeak barre eta negar egiten du, denetik dago. Baina oso gustura ateratzen dira zinematik»

ezagutzeko, izugarriko maitasuna ematen dizute. Izugarria da eta esperientzia benetan hunkigarria da.

Zer kontatu nahi izan duzue 'Simplemente' filmarekin?

Jende hauekin orain artean egin den gauzetatik atera nahi genuen. Beste zerbait eskaini nahi izan dugu; beraiek izatea nahi genuen eta beraien azalpenak entzun. Zer ikusiko duen jendeak? Ezberdina den zerbait. Lotura bezala dantza dago, baina beraiek eta beraien bizitza erakusten dugu, normalean ezagutzen ez ditugun bezala erakusten ditugu. Gauzak garbi esaten dituzte, ez daukate aurreitziarik eta gu berriz, juzkuz beteta bizi gara, eta orduan pentsatzen duzu «hauek bezalakoa izan nahiko nuke».

Orain artean zein harrera izan du filmak?

Aurre estreinaldietan gabilta eta Arrasate, Donostia, Iruñea, Gasteiz, Bilbotik... pasa gara eta sarrera guztiak saldu dira eta erantzuna zoragarria izan da. Leku guztietan, zinematik ateratzen zoriandu egin gaituzte eta benetan harrera oso ona izan du. Denetik dago, jendeak barre eta negar egiten du, baina azken finean jendea oso gustura ateratzen da zinematik.

Eta noiz izango da Tolosan ikuste-kokura?

Espero dut maiatza aldera posible izatea. Horretan ari naiz, baina astebururo zerbait dago eta maiatzean edo posible izatea espero dut. Tolosakoa naiz eta normala den moduan Tolosara ekarri nahi dut. **Honelako lanik errepikatzeko asmorik duzu?**

Badugu beste zerbait esku artean, baina oraindik ez dakigu. Gainera orain etapa hau gozatzea eta bukatzea egokitzen zaigu. Ziur gaudue aurrerago zerbait egingo dugula.

Aizkardik Baigorri-Ibañeta irteera prestatu du hilaren 18rako

Villabona » Izena hilaren 15erako eman beharko da eta Olaederra kiroldegitik 07:00etan abiatuko dira.

E. MAIZ

Aizkardi Mendi Elkarreak hilaren 18rako mendi irteera antolatu du. Oraingoan Behe Nafarroara joango dira eta Baigorritik (160metro) abiatuz, Adartzara (1250m) igoko dira Urdiako Gainatik (985m) igaroz. Desnibel txikiko gailur ezberdinetatik igaroz eta beste gailur batzuek pasaz, Lindus (1220m) mendia igoko dute. Bertatik jaisten hasiko dira eta Ibañetako porturaino (1075m) joango dira.

Guztira 26 kilometroko ibilbidea da eta antolatzaileek hori egiteko zazpi ordu aurreikusituz. Izena emateko azken eguna berriaz, hilak 15, osteguna izango da eta 649 71 71 82 telefono zenbakira 20:00etatik 22:00etara deituz edota Aizkardi Mendi Elkartera joanda eman daiteke. Irteera, Olaederra kiroldegitik igandean 07:00etan izango da.

Laburrak

Gaur 20:00etan ohiko osoko bilkura egingo dute

VILLABONA » Villabonako udaletxean gaur, 20:00etatik aurrera ohiko osoko bilkura egingo dute. Gaurkoan ondorengo gai zerrenda landuko dute: aurreko bilkurako akta onartuko dute. Bigarren puntuan, Larrea auzoan 61 lurpeko aparkaleku-plazen herri-jabariako emakida esleitzeko baldintzen agiria eta demaniozko emakidarako esleipen espedientea, ondoren, Gurea Zine aretoko instalakuntzetan proiektio eta ustiapen zerbitzuen kontratua behin betiko esleitzea; laugarren puntuan Pikolin D Hirigunean 001 lur sailaren lerrokadurak eta sestrak aldatzeko Xehetasun Estudioa behin betiko onartzea. Azken puntuan, zergak, tasak eta prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskalak. Bukatzeko erregu, mozio eta galderak izango dira.

Hilaren 12an, 19:00etan festak antolatzeko bilera

ANOETA » Anoetarrak buru-belarri festak antolatzen ari dira eta Aste Santuetako oporren ostean, hilaren 12an, 19:00etan udaletxean elkartzeko dira antolaketeekin jarraitzeko. Beti bezala, herritar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera.

Gorostidi Harriaren IV. Txapelketa Mendizabal II.aren omenez izango da

Aduna » Hilaren 25ean 18:00etatik aurrera herriko frontoian izango da. Harria, aizkora eta txingak ikusteko aukera egongo da.

ENERITZ MAIZ

Laugarren urtez jarraian, Adunan, Gorostidi Harriaren Txapelketa izango da. Hilaren 25ean igandez, 18:00etatik aurrera herri kirol ikuskizun politaz gozatzeko aukera egongo da. Ez da sarrerarik izango frontoira sartzeko baina bertaraten direnek borondatea emateko aukera izango dute.

Aurtengoan, 150 kiloko zilindro zaharrarekin antolatu dute txapelketa. Esku bakarrez eta 80 kilotik gorakoan nor baino nor ariko direnak Aimar Irigoien eta Joseba Ostolaza izango dira. Eta 80 kilo azpiko kasuan eta bi eskuekin Telleria Anaiak eta Josetxo Urrutia leitzarra ariko dira. Bost minutuko saioak egingo dituzte harri-jasotzaileak eta jasoaldi gehien egiten dituenak izango da garailea.

Jarraian, Joxe Mari Mendizabalen omenezko aizkora saioa izango da. Alde batetik, Olasagastik kanakoa moztuko du zutika eta bestetik Azurmendik etzanda egingo du saioa. Bukatzeko, 75 kiloko txingekin ere Txapelketa izango da, baina kasu honetan oraindik zehaztu gabe daude parte hartzaileak, azken mementora bitarte ez baitute jakingo norik eman duen izena.

Uztartza Jatetxean hilaren 25a bitarte ikusgai daude 150 eta 185 kiloko harriak eta egunean bertan frontoira eramango dituzte.

150 kiloko zilindro zaharra

Iñaki Gorostidi adunarrak, beste marka batzuen artean, 1982. urtean berak 77 kilo zituela 185 kiloko harria esku batez jaso zuen. Marka honen harria, txapelketa bat antolatzeko ideia izan eta Adunako Kultur Elkartean proposatu zuten. «Orain dela lau urte hasi ginen antolatzen eta lehen txapelketa 185 kiloko harria bi eskurekin jasotzea izan zen. Bigarren txapelketan, bi eskuekin 208 kiloko harria jasotzea izan zen eta hirugarren urtean ez zen egin txapelketarik baina Ostolazak 185 kiloko harria jasotzeko ahalagiena egin zuen eta lurrera erori eta apurtu egin zen harria. Konpondu dugu baina aurrean txapelketa 150 kilokoarekin jarri dugu» azaldu digu.

Sari bereziak ere egongo dira «80 kilo azpikoaren artean, esku bakarrarekin jasotzen duenak 200 euroko saria eskuratuko du. Eta 80 kilotik gorakoaren kasuan, 185 kiloko harria esku bakarrarekin jasotzen duenarentzat ere 200 euroko saria izango da. Baina txapelketa



Uztartza Jatetxean ikusgai egongo dira Iñaki Gorostidiren bi harriak Txapelketa eguna bitarte. E. MAIZ

berez, 150 kiloko zilindro zaharrarekin dago prestatua» argitu nahi izan du Gorostidik.

Guk Iñaki Gorostidirekin hitz egin dugu baina garbi utzi nahi izan digu «ni ez naiz antolatzailerik. Muxkil kultur elkarteak dago herriaren eta guztien artean antolatzen

dugu. Udalak ere bere laguntza ematen du eta herritarrek ere asko laguntzen dute».

Txapelketa honek duen beste berezitasuna ere azaldu digu: «lau urte hauetan sarrera dohainik jarri da eta aurrean ere horrela izango da. Borondatea eskatzen dugu eta au-

rreko urteetan jendeak nahiko ondo erantzun du. Jendeak ez dela dirua biltzeko baizik eta Kultur Elkartea bati laguntzeko eta garai bateko harri jasotzaileen lana gogorarazteko eta era berean, omentzeko dela ikustea nahi dugu» dio harri-jasotzaile ohiak.

JOXE MARI MENDIZABAL HERRITARRA GOGOAN

Joxe Mari Mendizabal aizkolari hil berriaren omenez ospatuko dute Gorostidi Harriaren IV. Txapelketa. Ezustean harrapatu zituen martxoaren 28an Olasagastien aurkako apustuaren osteko berriak. Hilaren 25ean Txapelketa honetan izatekoak ziren bai Joxe Mari Mendizabal eta baita Joxe Mari Olasagasti ere, aizkorarekin beste erakustaldi bat emateko Adunako frontoian.

«Aurreko Txapelketa guztietan hemen izan zen erakustaldiak ematen eta orain ere etortzeko zen Olasagastirekin batera, enbor bana moztzea zutikako modalitatean» gogoratu du Iñaki Gorostidi herritarrek. Berri txarrak bat batean eta antolaketa lanak aurreratuta harrapatu ditu Muxkil Elkarteko kideak, eta aldaketak egin beharrean aurkitu dira; oraindik guztiz zehaztu ez badute ere zer egingo duten, Joxe Mari Mendizabal aizkolaria gogoan izango dute eta omenaldi txikiren bat egingo diote txapelketaren egunean. Gorostidik azaldu digunez «aurrerago, Udalak ere omenaldiren bat egiteko asmoa ere agertu du baina mementoz ez dago ezer ziurtatuta».

» IV. TXAPELKETA

Hilak 25, 18:00etan

■ **Irigoien eta Ostolaza.** Esku bakarrez ariko dira 80 kilotik gora.

■ **Telleria anaiak eta Urrutia.** 80 kilo azpikoak eta bi eskuekin ariko dira.

■ **Txingak.** 75 kiloko txingekin txapelketa izango da.

■ **Aizkora saioa.** Olasagasti eta Azurmendik egingo dute.

Marka apurtzeko aukera

■ **150 edo 185 kiloko zilindro zaharra.** Iñaki Gorostidiren marka inork apurtu nahiko balu aukera Adunako frontoian izango da.

Udalbatzak 1,66 milioi euroko aurrekontua onartu du 2010. urterako

Amezketak » Inbertsio nabarmenena Herri Zentroa da eta bertarako 400.000 euro inguru bideratuko dira aurrean.

ERREDAKZIOA

Amezketako Udalbatzak azkeneko osoko bilkuran aurtengo aurrekontua, 1,66 milioi eurokoa, onartu zuen aho batez. Inbertsio nagusien Herri Zentroa izango da eta aurtengo aurrekontutik 409.000 euro jasoko ditu. Aurrekontuarekin batera, Udaleko aurtengo langile plantila organikoak onartu zuten eta iaizkoarekin alderatu ez du izango aldaketarik.

Beste inbertsio nagusien hirigunea biziberritzea eta ur galerak murriztea izango da. Hirigunearen biziberritzeari dagokionez, Espaloiaren Proiektua deitzen zaiona, ia 150.000 euro jarriko dira eta irisgarritasun aldetik hobekuntzak ekarriko ditu. Ur galerak murrizteko proiektuan 126.000 euroko inbertsioa egingo da. «Egun %50 inguruko galerak daude eta hortik %20ra pasatu nahi dugu», azaldu du Jesus Iñurritia alkateak. «Gero maila horretan mantentzeko, sistema automatiko bat jarriko da. Neurketak zuzenean udaletxera bidaltzen ditu eta bertan dagoen sistema informatiko batek, galerak azaltzen direnean abisua ematen du».

Beste inbertsio garrantzitsua Espainiako Gobernuak bultzatzen



Herri Zentroa egiteko Aierbenea etxea berrituko dute. I. GARCIA

duen Plan E-ren diru laguntzen bitartez egingo dena da. Plantxenetik mediku kontsultara bitarteko ur sareak berritu eta zorua oinezkoarentzat irisgarriago izan dadin jasotzen duen proiektua onartu zuen Udalbatzak. 106.000 euroko kostua izango du eta Madriletik balekoa eman zaio.

Lanak irailean hasiko lirateke eta ondorengo hiru hilabeteetan bukatu. Obrak burutzeko aukera herriko kontratista guztiei eskaintzea ere adostu zen. Eskaintza onena aurkezten duenak jasoko du esleipena.

Artxibo historikoa herrira

Gai bat ere badago garrantzirik ez duena zenbakietan, baina bai herriarentzat, alkateak dioenez, hau

da, artxibo historikoa berreskuratzea. «Gerra aurretik seguruen a udalxetik elizara pasatu zen babesteko», azaltzen du Iñurritiak. «Elizan izan da orain dela 25 urte inguru arte eta hortik Donostiako Seminariora joan zen».

Gotzaitegiak baimena eman dio Udalarari artxiboa herrira eramateko, baina baldintza batekin: aurretik katalogatu egin behar da. «Dokumentu bakoitzari laburpen bat egin, zertan den eta zeinek parte hartzen duten zehaztu», dio alkateak. «Hori egiteko aurrekontutik 12.000 euro jarri ditugu». Falta dena, 24.000 euro, datorren urteko aurrekontutik jarriko da.

Lana aurtengo abuztuan bukatzea espero dute eta Donostian bertan egin beharrekoa izango da.

Ondoren, udaletxean gela batean lekua egingo zaio. Internet bidez katalogoaren datuak begiratu ahal izango dira. Gaiak «garrantzia handia du herriko historia bilduta baitago artxibo horretan», azaltzen du Iñurritiak.

Mozioak

Aurrekontua onartu zen osoko bilkuran, bi mozio onartu zituen Udalbatzak. Horiertako bat Larraulgo eskola txikiari buruzkoa. Mozioan zehazten denez, Udalak «bere babes osoa adierazten dio Larraulgo Udalarri bere herri eskola propio bat izan dezan».

Beste mozioa Igeldo udalerrirre testuan zehazten zenez, «herri txikiak bizirik irauteko duten eskubi-

» ZENBAKIAK (eurotan)

GASTUAK 1.658.975

A) OPERAZIO KORRONTEAK	
Pertsolanaren lansariak	261.871
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	294.549
Finantza gastuak	13.516
Transferentzia arruntak	162.040
B) KAPITAL ERAGIKETAK	
Inbertsio errealeak	876.749
Kapital transferentziak	162.040
Pasibo finantzieroa	34.440

SARRERAK 1.658.975

A) OPERAZIO KORRONTEAK	
Zuzeneko zergak	159.390
Zeharkako zergak	41.644
Tasak eta bestelako sarrerak	136.865
Transferentzia arruntak	619.223
Ondareen sarrerak	1.476
B) KAPITAL ERAGIKETAK	
Inbertsio errealeko besterentzea	0
Obretarako transferentziak	700.377
Mailguta	0

INBERTSIOAK 876.749

Sareen berrikuntza	106.269
Hirigunea biziberritu	146.682
GIS ur galerak murriztea	126.202
Baserriko bideak	50.000
Zumadi eskolako segurtasuna	22.284
Herri Zentroa	409.902
Artxibo historikoaren katalogo	12.000
Artxiboen Digitalizazioa	3.419

dearen alde egiten dugu. Igeldotarren gehiengoak adierazitako borondatearekin bat egiten dugu. Eta borondate horri bide ematearen aldekoak gara».

Beste gai batzuk ere jorratu ziren osoko bilkuran. Horiertako bat guraso eskola antolatzearen ingurukoak izan zen. Egitasmoaren aurrekontua hileko 161 eurokoa da eta eskolak %25 eta Udalak %75 bere gain hartuko dute.



Beste txapel bat Renobalesentzat

ALEGIA » Aurreko astean Ugaitz Renobalesek (argazkian ezkerrean) beste txapel bat eskuratu zuen. Kasu honetan Lopezekin batera Zumarragako XIX. Goñi Memoriala irabazi zuen, hain justu, Aurrera-Saiaz elkarteko pilotariak osatutako bikotearen aurka: Baez II.a donostiarrak eta Telletxea albiztuarrak. Partida guztia atzetik joan ziren Renobales eta Lopez. 19-14 galtzen joan ziren ere, baina azkenean 22-20 irabazi zuten. Partida gogorra izan zen, beraz, finala. PATXI RENOBALDES



Intxurreren etorkizuna lantzen

ALEGIA » Intxurre futbol elkartek parte hartuko du hilaren 10ean Idiazabalgo Torneoan. Azken bost urteetan hiru aldiz irabazi dute lehiaketa hori. Infantil eta aalebin mailakoak nahastuta osatzen da zortzi kideko

taldea. Bien bitartean, aurreko astean, Intxurreko alebinak lagunarteko partidak jokatu zituzten Tolosan, zortzi kidez osatutako taldeetan, etorkizuna lantzeko asmoz. HITZA

Eskualdeko 6 herri Herriarteko Txapelketa-Kutxa Sarian

Pilota » Hiru modalitate izango dira: eskuzkoa, zesta-puntakoa eta palakoa. Bihar egingo dute kanporaketan zozketa.

ERREDAKZIOA

Aurten ere Herriarteko Txapelketa-Kutxa Saria izango da datozen hilabeteetan. Hiru modalitate izango dira (eskuzkoa, zesta-puntakoa eta palakoa) eta kanporake-

ten zozketa bihar bertan egingo dute Donostiako Zientziaren Kutxagunean egingo duten aurkezpenaren ondotik.

23 herrik hartuko dute parte eskuzkoan

Eskuz 23 herri ariko dira guztira eta sei eskualdekoak izango dira: Albiztur, Alegia, Amasa-Villabona, Amezketa, Bidegoian eta Tolosa. Zestan-puntan berriz hiru herrik eman dute izena eta eskualdekoa bakarria izango da: Tolosa.

Palan berriz 9 herri ariko dira lehian, baina ez da inguruko ordezkariarik izango.

Iazko txapelketan eskualdeko ordezkariak lan txukuna egin zuten eta zesta-puntan Tolosak eraman zuen txapela Beotibar pilotalekuan Zumaiaren kontrako partidareta gero.

Palan, aldiz, Andoinek irabazi zuen Oartzunen kontra, eta eskuz, Bergara eta Hernani izan ziren finalistak, Bergarak irabazi zuelarik.

» AURREKO EDIZIOAK

Zesta-punta

■ **Txapelketa kopurua.** 12 (1998. urtetik 2009ra).

■ **Eskualdekoen txapelak.** Tolosak hiru txapel eskuratu ditu; 1998an, 2008an eta 2009an. Zumaia da txapel gehien eskuratu dituen, 6 zehazki. Ondoren, Donostia eta Tolosa daude berdinurrik.

Pala

■ **Txapelketa kopurua.** 19 (1991. urtetik 2009ra).

■ **Eskualdekoen txapelak.** Eskualdekoek ez dute inoiz irabazi, baina 1992. urtean Altzo txapeldunordea izan zen. Errenteria eta Do-

nostia dira txapel gehien irabazi dituztenak, bosna. Zerrendako hurrengoak Olaberría da lau txapelekin, eta Oartzunek bi ditu.

Eskua

■ **Txapelketa kopurua.** 42 (1968. urtetik 2009ra).

■ **Eskualdekoen txapelak.** Amezketa txapela eraman zuen 1993. urtean eta beste bitan, 1994. urtean eta 1997. urtean, txapeldunorde izan zen. Tolosa 1975. urtean izan zen txapeldunordea. Azkoitia da txapel gehien eraman dituen, 16. Hurrengoak Donostia da bost garaipenekin, eta Segura dago ondoren lau txapelekin.

Mendiak garbi mantentzeko deialdia egin dute aurten ere

Berastegi » Hilaren 24ean, larunbata, joango dira herriko inguruak garbitzera 09:00etan plazatik abiatuta.

ERREDAKZIOA

Bosgarren aldiz *Berastegiko mendiak garbi* lelopean, Mendi Garbiketa burutzeko asmoa du herriko Aldin Kultur eta Kirol Elkarteak.

Aurten gaztetxoan laguntza ere izango dute, gainera. «Muñagorri eskolan uraren gaia aztertzen ari direnez, mendien eta erreken garbiketari ekingo diogu», argitu dute Elkarteko kideek.

Bosgarren edizioaren helburua «Arrateko erreken ondoan urteetan zaborra bota ondoren sortu den zabortegia hustea eta inguru txukuntzea izango» da.

Izan ere, «urria egiten duenean, zaborretan ura kutsatu eta ondoren ur horrek erreka kutsatzen du. Zabor kutsakorra kentzea ezin-



Urtero traste ugari aurkitzen dituzte inguruak garbitzerakoan. HITZA

bestekoa da erreka ez kutsatzeko», argitu dute Elkarteko kideek. Lan hori ondo egitearren, aurretik Berastegiko Udalaren hondeatzaileekin azpian dagoen zaborra azalaratuko dute.

Hilaren 24ean, larunbata, egingo dute garbiketa eta horretarako 09:00etan bilduko dira herriko plazan Arrate aldera abiatzeko.

Plazatik Zentralaren ondoko

zabortegia hustera joango dira eta handik Atxokorbeko karobiko eta Akarkoi inguruetako zaborrak jasoko dituzte. Erreka ondoak ere garbituko dituztela argitu dute Al-dineko kideek.

Horiek horrela, «Elkartetik berastegiaren guztiei dei egiten dizuegu ekintza honetan parte hartu dezazuen. Traktore eta atoiak ere behar ditugu».

Kezka ugari N-1 errepidearen saihebidetaren inguruan

ERREDAKZIOA

Burdina Taldea historia-ondarea gordetzeko lan egiten duen elkarte da. Andoain inguruan aritzen baldin bada ere, Villabona alde ere lantzen du. Aurki egingo duten batzar orokorrean, gainera, Berastegi, Elduain, Beizama, Amasa-Villabona eta Leitxaran bailaran orokorrean dagoen historia-ondarea berreskuratzeko prestatu duten urteko programa aurkeztuko dute.

Oraingoan ordea, N-1 errepidearen saihebidetaren egiteko burutuko dituzten lanak egiteko Andoaingo Bazkardo Txiki karegilea eta Mendizluze baserri ondoko Zumalakarregi gotorlekua botako dituztela salatu dute. Horiek horrela, erakuntza egitasmoari bi alegazio aurkeztu dizkio Andoaingo Udalean.

Era berean, larunbatean kalteak izango diren bi lekuetara joateko irteera irekia antolatu dute.

Laburrak

Makinarekin josten ikasteko ikastaroa

BERASTEGI » Makina bidez josten ikasteko ikastaroa antolatu du Berastegi guraso elkarteak. Larunbat honetan bertan hasiko da eta beste hamar larunbatez luzatuko da. Ordutegia 13:30etik 16:30era izango da eta Eva Garaikoetxea izango da irakaslea.

KZgunea zabalik egongo da bihar goizean

BERASTEGI » Berastegiko Udalak jakinarazi duenez, bihar, hilak 8, eta hilaren 22an KZgunea goizez irekiko dute eta dinamizatzaileak izango dira bertan. Internetarekin trebatzeko gunea herriko plazan dago eta 09:00etatik 13:00etara irekiko dute.

Ordutegi berezia Pzako Astea dela eta

IBARRA » Pzako Astea dela eta, Benito Izagirre kultur etxea eta Udal Liburutegia arratsaldean itxita egongo dira, eta goizez 09:30etik 13:30era egongo dira zabalik.

Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19.000 arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

AIMAR MURUA OLANO



Gogorra duk hau motel ta edozeñiek bazekik baña eztiagu galduko ezañetako iririk zeren hire alaitasunak gurekin jarraituko diik.

Muruarat-lehengusuak



AMEZKETAN,
2010eko
apirilaren 7an

IÑAXI TORREGARAI GARMENDIA

(Anjel Aiestaranen alarguna)

Hereregun hil zen, 90 urterekin.

-Goian bego-

Seme-alabak: Nieves eta Xanti Enparantza, Kontxi; bilobak: Gorka eta Theo, Alazne; anai-arrebak: Maria (†), Eustakio (†), Juliana, Daniel (†), Jesusa, Jose M^a (†), Miguel; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otolitz baf eskatzen dituzte eta arren etor zaitezte GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI ZERURATUAREN parrokia elizan egingo den hiletara. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.

Helbidea: Kale Nagusia 3, 2. Uste gabeko helbidea: Arangoiti Fundazioa. Oharra: Gorpua Beasaingo Goleirri Bellatokia egongo da 13:30a arte.



BEASAIN
2010eko
apirilaren 7a



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHOZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoeta/leitza@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 118. ibarra/leitza@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza/leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Ibarra.** *Hau natura! Airea, lurra eta ura txotxongilo emanaldia* Bihar taldearen eskutik.

Deialdiak

■ **Alegia.** Txintzarri Abesbatzak *Kantuaren eta jolasaren tailerra* antolatatu du. Hilaren 16tik ekainaren 26ra bitarte izango da. Izena emateko azken eguna etzi, hilak 9, da eta Kultur Etxean egin behar da.

Lehiaketa

■ **Anoeta.** Festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatatu du Udalak. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira hilaren 26rako.

Mendia

■ **Tolosa.** Hilaren 16tik 18ra Vignemale-ra (Pirinioak) mendi irteera antolatatu du Oargi mendi elkarteak. Izen-ematea, 943-67 56 12 edo 688-69 86 42 zenbakietan edo www.oargi.org helbidean.

■ **Tolosa.** Lasa-Banka (Behe Nafarroa) mendi irteera antolatatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak hilaren 18rako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5), 943-65 27 89 zenbakian edo alpinouzturre@hotmail.com helbidean.

■ **Villabona.** Hilaren 11rako Villabona-Xoxoka-Hernani goizerako mendi irteera antolatatu du Aizkardi mendi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen ostegunetan 20:00etatik 22:00etara, aizkardi@aizkardi.com helbidean edo 649-71 71 82 zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** M.I. Larraia. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.




Larresorokoekin sagardotegira

LEABURU-TXARAMA ■ Leaburu-Txaramako herritarrak Gaztañaga sagardotegian bildu ziren martxoko azken asteburuan Larresoroko lagunekin batera. Urteroko hitzordua da jada eta aurtengoan ere «giro paregabea» izan zuten. Sagardotegian eguerdian bildu ziren eta handik toka txapel-

ketara joan ziren. «Ondoren bazkariak zein gure giroaz gozatu genuen», argitu dute. Bertan 60 pertsona elkartu ziren, eta «argazkian ikusten den moduan AHTren aurkako, presoen etxeratzearen aldeko banderola eta ikurrinarekin zenbait aldarrikapen egin genituen», gaineratu dute. HITZA

A Agurrak



Zorionak amona Inaxi!

Jaso iloba eta biloben besarkada handi bat 94. urtebetetzean.



Zorionak Peru!

Atzo 5 urte. Muxu handi bat familiaren partetik!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

